

Hernaniko

ikastetxeetako

eremu publikoen

erabilerarako

protokoloa

1. Helburua

Protokolo honen helburua da eskola-orduz kanpo Hernaniko ikastetxeetako eremu publikoen erabilera egoki baterako baldintzak sortzea, hernaniar guztiek instalazio publiko hauek modu eraginkorrean erabili ahal ditzaten.

2. Eragin eremua

Protokolo hau Hernaniko Udalaren menpeko diren ikastetxeetako eremu publikoetarako baliagarria izango da, modu orokor eta librean erabiltzekoak diren eremuetarako, alegia. Bestelako erabilera batzuetarako (talde antolatutak, urte osoko jardunak...), horretarako Udalak eta ikastetxeek ezarriak dituzten ohiko bideak erabiliko dira.

Hauek dira ikastetxe bakoitzean, modu orokorrean, eta publiko guztiari zabalik egongo diren eremuak (institutua Udalaren eskumenekoa ez bada ere, erabilera egokirako protokolo hau bertara zabaltzeko borondatea du Udalak, Institutuarekin eta Hezkuntza Delegaritzarekin adostuta):

IKASTETXEA	EREMUAK
→ LANGILE IKASTOLA. LAU BIDIETA	Kirol eremua
→ URUMEA IKASTOLA. GAY MUR	Kanpoko patioa
→ ELIZATXO IKASTOLA	Kirol eremua
→ INSTITUTUA	

3. Erabiltzaileak

Erabiltzailea edozein herritar izan daiteke, bakarka edo taldean (talde antolatuek eskari formala egingo dute) espazio publiko horiek eskaintzen dituzten zerbitzuak eta aukerak baliatzen dituen bere aisialdiaz gozatzeko.

4. Erabilerak

Eremu horien erabilera egokia egin dadin, honako jarduera hauek lehenetsiko dira:

→ Kirol praktika. Kiroletako bakoitza horretarako propio egokitutako eremuetan egin behar da, hala nola, pilota pilotalekuan; futbola eta eskubaloia ateak dauden eremuetan; saski-baloia saskien eremuetan...). Bestelako kirol praktika batzuk egin ahal izango dira, beti ere, altzarietan zein gainerako erabiltzaileengan ez badute kalterik eragiten, hala nola, patinajea, gimnasia, dantza...

→ Jolas librea eta komunitarioa, mahai-jolasak, eta aisialdiko bestelako praktikak, beti ere, bertako altzarietan zein gainerako erabiltzaileengan ez badute kalterik eragiten.

5. Ordutegia

Goian aipaturiko eremuak, modu orokorrean, honako ordutegi hauetan egongo dira zabalik, herritar ororentzat. Espazioak irekitzeaz eta ixteaz Udaltzainak arduratuko dira:

DENBORALDIA	NEGUKO ORDUTEGIAN (AZAROTIK MARTXORA)	UDAKO ORDUTEGIA (APIRILETIK URRIRA)
ESKOLA EGUNETAN → Eskola kiroleko saioak amaitzen direnetik aurrera ¹	→ arratsaldeko 20:00ak arte	→ gaueko 22:00ak arte
OPOR GARAIAN ETA ASTEBURUETAN →	→ 09:00etatik 20:00etara	→ 09:00etatik 22:00etara

6. Konpromisoak

Ikastetxeetako eremu publikoak guztionak dira, eta guztiok erabili ahal izateko. Eragile eta erabiltzaile guztioi dagokigu, hortaz, instalazioak behar bezala mantentzea eta txukun edukitzea. Horretarako, honako konpromiso hauek geure egiten ditugu:

¹Elizatxo ikastola: astelehenetik asteazkenara: 18:00etatik aurrera; ostegunetan: 20:00etatik aurrera.

Langile ikastola: astelehenetik ostegunera: 17:45etik aurrera.

Urumea ikastola: astelehenetik ostiralera: 18:30etik aurrera.

6.1 Udalak

- Instalazioa txukun mantentzea, horretarako, bertako altzariak, zuhaitz eta landareak, lorategiak eta ikastetxearen bestelako elementuak zaintzea eta garbi mantentzea.
- Arazoak sortzen direnean, irtenbide ahalik eta azkarrena ematea.
- Ezarritako ordutegiak betetzea eta betearaztea (irekitze eta ixte orduak).
- Hemen jasotakoak herritarrei jakinaraztea

6.2. Ikastetxeek

- Protokolo honetan jasotakoak ezagutzera ematea eta hezkuntza-komunitatean lantzea.

1 Erabiltzaileek

- Instalazioa txukun mantentzea, horretarako, bertako altzariak, zuhaitz eta landareak, lorategiak eta ikastetxearen bestelako elementuak zainduz
- Bestelako erabiltzaileekiko begirunez jokatzeko, hauei kalterik eragin gabe, eta baita espazioaren eta denboraren erabilerrari dagokionean ere.
- Iturri publikoak egoki erabiltzea, eta urik ez xahutzea
- Eremu guztia garbi mantentzea, horretarako, hondakinak dagozkion ontzietara botatz
- Haurrentzako parkeko elementuak soilik adinez egokiak direnek erabiltzea
- Soilik publikoarentzat zabalik dauden eremuetan ibiltzea, itxitako eremuak errespetatuz
- Eremuan kalte nabarmenik edo erabilera okerrik antzemango balu, ikastetxeko edota Udaleko arduradunei jakinaraztea

7. Jarraipena

Udalak ikastetxeetako zuzendariekin hilabetero egiten duen bileran jarraipena egingo zaio protokolo honetan bildutakoari. Kalteak edota arazoak sortzen direnean, honako jarraibideen arabera jokatuko da:

1.	ARAZOA IDENTIFIKATU
2	UDALTZAINEI EDO MANTENUKOEI ARAZOAREN BERRI EMAN
3	ARAZOARI ERANTZUNA EMAN
4	HEZKUNTZA SAILAK GAIA LANDUKO DU Arazoa sortu duen pertsona identifikaturik ez badago → hurrengo hilabeteko bileran horren berri emango da, eta behar izanez gero, gaia landuko da Arazoa sortu duen pertsona identifikatzen denean → hezkuntza sailak gaia dagokion eragileekin bideratuko du (kale hezitzaileak, ikastetxeak, udaltzainak, edo bestelako eragileak).

